

# Unai Goikoetxea Nazabal

**A** maila • 2 aipamena

17 urte ditut eta ataundarra naiz. Lazkaoko San Benito ikastolan Batxilergoko 1. mailan ari naiz. Pilotaria naiz eta bertsolari baino bertsozalegotzat daukat nire burua. Sekula ez naiz bertso eskolara joan, nahiz eta oraindik ez dudan aukera hori baztertzen. Txirrindularitza eta motoziklismoa ere ikaragarri gustatzen zaizkit.



## ITALIAKO GOGOETAK

Italiara bidean goaz  
Aspertuz kantu kantari  
Irakaslek esandako kontuk  
Entzunaz azkar ta adi  
Hogei ordu amaigabe hotan  
Adarra jotzen elkarri  
Eta han zer aurkituko dugun  
Zalantzasz beterik larri

Azkenean iritsi gara ta  
A zer poza batzuena  
Elkartrukekoak ikusirik  
Ahantzi zenbait problema  
Kostata baina hurbildua naiz  
Lotsauta Albertorena  
Hitz egiten hasi garenean  
Hanka sartze handiena

Euskeraren aldean ingelesez  
Ni ez naiz ondo moldatzen  
Nahiz eta komunikau beharrak  
Naun saiatzera behartzen  
Lehenengo eguna pasa dut  
Akats pila bat egiten  
Baina esaten duten modura  
Horrela guru ikasten

Janariaren kontuan ere  
Neukan buruan sartuta  
Jatun oso ona ez bainaiz ni  
Bestekin konparatuta  
Hasieratik ipini nuen  
Gerrikoa askatuta  
Nahiz eta ez pentsa jada nago  
Pizzarekin nazkatuta

Irteeretan ibili gara  
Gehio gozatu ezinik  
Zorionez gutako inorrek  
Ez du hartu bertan minik  
Agurtzeko garaia heldu da  
Azkar egia esanik  
Pozez txoratzen gaude guztiok  
Lagun berriak eginik

Autobusean sartu gara ta  
Zer urduritasun festa  
Ahaztuta dauzkagu jada  
Lenengo euneko kezkak  
Azken esaldi hau esatea  
Neretzako da erraza  
Etxea bezalako tokirik  
Inon topatzerik ez da